

HAUR DANBORRADAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

*Eskolaz Kanpoko Ekintzetarako Batzordea Laudioko Haur Danborrada prestatzen hasi da eta Lehen Hezkuntzako ikasleak entseguekin hasi dira jada musika saioetan. **Apirilaren 24an**, ostiral batez, ospatzea egokitu zaigu aurten.*

Ikasle eta gurasoei dei egiten diezuegu Danborradan parte har dezazuen. Ezinbestekoa dugu jadanik partaide kopuru osoa, hau da, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako taldeetan aritzeko prest dauden ikasleen kopurua ezagutzea, bai eta gurasoena ere.

IZENA EMAN MARTXOAREN 6RAKO

Ikasleek zein gurasoek martxoaren 6a baino lehen eman behar duzue izena. Orri honen beheko aldea behar bezala beteta idazkaritzako bandejan entregatu.

Danborradan ateratzeko beharrezkoa izango da entseguetan parte hartzea.

ENTSEGU OROKORRAK ETA NORBERAK PRESTATZEKO JANTZIEN ARGIBIDEAK *apirilaren 14ko zirkularrean iragarriko dira.*

IKASTOLAKO BARNE BEKA PROGRAMA

Zailtasun ekonomikoak eta hileroko erreziiboak ezin ordaindurik dabiltzan familientzako barne laguntza programa mar txan jarriko du berriro Ikastolak. Programa honen bitartez eta bazkide guztien ekarpene kin kuota ezin ordaindurik aurkitzen diren familiekin elkartasun sistema bat osatu nahi da. Banatzen den hornidura hau bazkide guz tien ekarpenekin osatua da. Deialdi hau ikas tolako maila guztietara zuzendua dago.

Laguntza hauetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzako be kaduna izatea eta beraiek Jantokiko zerbitzurako ezarria duten errentaren langa ren barruan sartzea. Gehienezko zenbatekoa, aurrekontuak ahalbidetuz gero, Jaurlaritzak emandako beka eta Ikastolako kuotaren zen batekoaren arteko diferentziaren %50ekoa da; Jaurlaritzako beken osagarria izanik.

Eskabideak idazkaritzan eskura daitezke eta beraiek entregatzeko epea martxoak 22 izango da.

IKASTOLAKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA

Laudio Ikastolak 2015eko Batzar Orokorre rako deialdia luzatzen die bere bazkideei.

Bilera 2015eko martxoaren 17an izango da, Ikastolaren egoitzan. Lehen deialdian 17:30ean eta bigarren deialdian 18:00etan.

PRUDENTZIO DEUNAREN HAUR DANBORRADA

ikasleen izen ematea

IKASLEA

GELA

TELEFONOA

gurasoen izen ematea

AITA

AMA

Martxoaren 6a baino lehenago idazkaritzan entregatzekoa!

ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN PARA LA TAMBORRADA

La Comisión de Actividades Extraescolares esta preparando la Tamborrada Infantil de Laudio y en Educación Primaria han comenzado ya a ensayar en clase de música. Este año tendrá lugar el **24 de abril**, viernes.

Invitamos a todo el alumnado, padres y madres a participar en la tamborrada. Necesitamos conocer ya el número de participantes con que contamos en Educación Infantil, Primaria y Secundaria, así como el número de padres y madres que participará.

APÚNTATE ANTES DEL 6 DE MARZO

El plazo de inscripción para participar finalizará el 6 de marzo. Rellena esta hoja y entrégala en secretaría.

Para participar en la tamborrada será imprescindible participar en los ensayos que se convoquen.

LOS DÍAS DE ENSAYO GENERAL Y EL VESTUARIO A PREPARAR se comunicarán en la circular del 14 de abril.

PROGRAMA DE BECAS INTERNAS

La Ikastola va poner de nuevo en marcha un programa de ayudas internas para familias con dificultades económicas que no puedan hacer frente al abono de los recibos mensuales. Por medio de este programa se pretende crear un sistema solidario con las familias que no pueden hacer frente al pago de las cuotas. La partida presupuestaria que se repartirá se constituirá con la aportación de todas las socias y socios. La convocatoria estará dirigida a todos los niveles educativos de la Ikastola.

Para acceder a las ayudas será imprescindible contar con la beca del Gobierno Vasco y encontrarse en el nivel de renta que esta convocatoria establece para las ayudas de comedor. El importe máximo de las ayudas, siempre que el presupuesto lo permita, corresponderá al 50% de la diferencia entre la cuota de la Ikastola y la beca obtenida del Gobierno.

Las solicitudes podrán presentarse en secretaría hasta el 22 de marzo.

CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL

Laudio Ikastola convoca a sus socias y socios a la Asamblea General de 2015.

La reunión tendrá lugar el 17 de marzo de 2015 en la sede de la Ikastola, a las 17:30 en 1ª convocatoria y a las 18:00 en 2ª convocatoria.

PRUDENTZIO DEUNAREN HAUR DANBORRADA

ikasleen izen ematea

IKASLEA

GELA

TELEFONOA

gurasoen izen ematea

AITA

AMA

Martoxaren 6a baino lehenago idazkaritzan entregatzekoa!